

HONDAKINAK ETA KONTSUMO ARDURATSUA

LEZOKO ESKOLAKO AGENDA 21 2012-2013 ikasturtea

Lezoko eskolek jada 5 urteko ibilbidea egin dugu Eskolako Agenda 21 hezkuntza programan. Lehengo ikasturtetik gainera, Lezoko Herri Eskola eta Lezo Institutuaz gain, Pasaia Lezo Lizeoa gehitu zaio programari eta, ikasturte honetan zehar, 950 ikasle izan gara, irakasle, guraso eta ikastetxeetako gainerako langileekin batera, hondakinak eta kontsumo arduratsua landu dugunak. Aldizkari honetan zehar 2012-2013 ikasturtean zehar eman ditugun pausoak laburbildu ditugu.

.....

Los centros escolares de Lezo (Lezo Herri Eskola, Lezo Institutua y Pasaia-Lezo Lizeoa) hemos cumplido 5 años en la Agenda 21 Escolar, y ya somos alrededor de 950 escolares los que participamos en dicho programa educativo. En esta revista os resumimos lo trabajado en torno a los residuos y el consumo responsable.





ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZE HAR?

Eskolako geletan eta txoko ezberdinetan (korridoreak, jolastokia, ...), **hondakinak gaika jasotzen** ditugun eta **sailkapena** modu egokian egiten ote dugun aztertu dugu. Gainera, behar den tokian kaxa edo edukiontzi bereziak

jarri ditugu eta inguruak txukun dauden ala ez begiratzeaz arduratu gara.

Aurreko urteen antzera, guztiok parte hartu dugu eskolako **hondakinen bilketan** eta ondoren egin behar den sailkapen egokian (ardurak banatuz ikasle, irakasle eta eskolako gainerako langileen artean).


Duela 2 urte ere hondakinen gaia landu genuenez, garai hartan hartu genituen **konpromisoen errepasoa** egin dugu eta ordutik hona hobetu egin dugula ikusi dugu (hondakinen murrizketan eta berrerabilpenean, adibidez). Hala ere, baditugu oraindik bete gabe edo erdi garatuta ditugun zenbait konpromiso eta, hemendik aurrera, horiei helduko diegu, guztion esfortzuari esker.

Herrietan hiri-hondakinak bildu eta sailkatzeko sistema ezberdinak daudela aztertzeak aukera izan dugu eta horietako bakoitzarekin lortzen diren emaitzak ezagutu ditugu, ikastetxean egindako ariketekin. Gainera, ikasleek azalpenak eman dituzte gelaz gela.

Gure eskoletan, Lezon martxan jarri den hiri-hondakinen bilketa sistema berrira egokitzeko pausoak eman ditugu.

Askariari dagokionez, gure ohiturak zeintzuk diren aztertu dugu eta gelan ondorioak atera ditugu, ondo egiten duguna ikusi eta hobetu behar duguna antzemateko.

Eskola barruko eta etxeko ohiturak ezagutzeko galdetegiak egin ditugu, eta ondorioak gelan lantzeaz arduratu gara.



Eskola barruan, eskolen artean eta udal ordezkariekin batera, hondakinei buruzko bilera eta foro ezberdinetan parte hartu dugu.

Maiatzaren 28an **Eskolarteko Foroa** antolatu genuen ikasturtean zehar egindako lana gogora ekarri, konpromisoen errepasoa egin eta **hondakinen arloko konpromiso berriak** adosteko. Bide batez, eskoletako eragileen (gurasoak, ikasleak, ...) parte-hartzearen kalitatea ebaluatu eta Lezoko Udalari zuzendutako proposamenen zerrenda osatu genuen.

Aurreko urteen antzera, **udal ordezkariekin foroa** antolatu genuen, maiatzaren 3 lean. Bertan, ikasturte honetan egindako lanaz gain, hartu ditugun konpromiso berriak eta Udalari zuzendutako eskaerak aurkeztu genituen.



Durante el curso escolar hemos llevado a cabo las siguientes tareas: sensibilización en materia de residuos y consumo responsable; análisis de la situación de centro (el patio, las aulas, el comedor,...); revisión de los compromisos adquiridos hace 2 años en materia de residuos; encuestas a las familias y al alumnado; estudio y comparación de distintos sistemas de recogida de residuos urbanos; Foro Interescolar del 28 de mayo, etc.

KONPROMISOEN BERRIKUSPENA

2010/2011 IKASTURTEAN ERE HONDAKINEN
GAIA LANDU GENUENEZ, GARAI HARTAN
HARTUTAKO KONPROMISOAK ERREPASATU ETA
HORIEN BETETZE-MAILA AZTERTU DUGU. HAUEK
DIRA EMAITZA OROKORRAK:



ESKOLA GEHIENEK BETETZEN DITUGUNAK

Hondakin gehienak gaika bildu eta
birziklatzera bideratzen ditugu ✓

Irakasleek eskolako kafe-makinan beraien
katilua erabiltzeko ohitura zabaltzen ari
da ✓

Orokorrean, eskolako ospakizunetan
(festak, urtebetetzeak, ...) hondakinen
murrizketa, berrerabilpena eta hondakinen
gaikako bilketa egiten dugu ✓

Etxekoak eta eskolatik kanpoko lagunak
hondakinen inguruko ohitura onak
martxan jartzera animatzen ditugu, gai
honi buruzko aholkuak emanez ✓

Egoera onean dagoen eskolako materiala
hurrengo ikasturtean berrerabili egiten
dugu ✓

Eskolako oharrak eta informazioa gurasoei
eta bestelako eragileei bidaltzerako
orduan, teknologia berriak erabiltzeko
ohitura dugu ✓

ERDIZKA BETE EDO ORAINDIK HASI GABE DITUGUNAK

Ikastetxeko gela zehatz batzuetan ez
dira zenbait hondakin gaika sailkatzen
(adibidez, laborategian edo jangelan) ✱

Oraindik zaborra edo txikleak topa
daitezke eskolako zenbait tokitan
(jolastokian, ...) ✱

Hamaiketakoa eskolara ekartzeko orduan,
tupperraren erabilera ez dago eskola
guztietan hedatuta ✱

Irakasle batzuek oraindik bilgarri asko
duen hamaiketakoa dakarte eskolara ✱

Paperaren erabilerari lotutako ohitura
onak ez daude orokortuta ✱

Eskolan, besteengan, jarrera desagokiak
ikusiz gero, oso gutxitan ausartzen gara
horiek zuzentzeko eskaera egitera ✕

Teniendo en cuenta que durante el curso 2010/2011
también trabajamos el tema de los residuos, hemos
aprovechado para evaluar el grado de cumplimiento

de los compromisos que los centros escolares adquirimos entonces. Si bien hemos dado importantes
pasos para reducir, reutilizar y facilitar el reciclaje de los residuos, todavía hemos de mejorar en
algunos aspectos (el uso racional del papel, la reducción del embalaje utilizado para traer el almuerzo
al centro escolar, etc.).



NOLAKOA IZAN DA PARTE- HARTZEA?



IKASTURTE HONETAN ZEHAR HONAKOA
IZAN DA **ESKOLAKO AGENDA 21**
PROGRAMAKO ERAGILEEN PARTE-
HARTZEAREN KALITATEA:

- Aurreko ikasturtearen antzera, ikasleen, irakasleen eta eskolako gainerako langileen parte-hartzea egokia izan da
- Gurasoen parte-hartzea ez da lehengo ikasturtetik hona hobetu, eta beraz, inplikazio handiagoa izan beharko lukete
- Ikasleen ustean, Udalaren partaidetza mailak, Eskolako Agenda 21 en gaian, okerrera egin du eta beraz, hobetzeko arlo bat izango litzateke



Los escolares hemos valorado la calidad de la participación de los distintos estamentos que participan en la Agenda 21 Escolar: aunque el alumnado, el profesora y el personal no docente de los centros escolares se ha implicado de forma satisfactoria, la participación de los padres y las madres y del Ayuntamiento debería mejorar.

GURE KONPROMISOAK

LEZOKO ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUGUN ESKOLEK ONDORENGO KONPROMISOAK HARTUKO DITUGU KONTSUMO ARDURATSUA ETA HONDAKINEN GAIAN

Hamaiketakoan eta askarian ahal den hondakin kopuru txikiena sortzeko, ohitura onak zabaltzen jarraituko dugu (hamaiketakoa behin eta berriz erabili daitezkeen ontzietan eramanez, bilgarriak gutxituz, ...)

Paperaren erabilera, ahal den guztietan, gutxitu egingo dugu. Horrekin batera, papera inprimatzerako orduan, ahal dela, 2 aldeetatik inprimatuko dugu eta berrerabilpena bultzatuko dugu (gelako ariketak egiteko, ...)

Eskolan, kalean eta etxean ez dugu zaborrik lurrera botako eta sortutako hondakinak gaika sailkatu eta bilduko ditugu. Gainera, hori egiten ez duten pertsonen arduraz jokatzeko aholkuak ematen saiatuko gara

Eskolako gela, eremu eta bulego guztietan sortutako hondakin mota bakoitza ondo bereizi eta modu egokian sailkatuko dugu, horien birziklapena errazteko

Eskolako ospakizun guztietan ahal den hondakin gutxien sortzen saiatuko gara, material berrerabilgarria erabiliko dugu (edalontziak, platerak, ...) eta sortutako hondakin guztiak gaika sailkatuko ditugu

Eskolako materiala arduraz erabili eta zainduko dugu, hurrengo urteetan eskolako kideek berriz ere erabiltzeko aukera izan dezaten

Ikastetxeak material edo baliabide berriak erosi behar dituenean (papera, bulegoko materiala, garbiketa produktuak, ...), prezioaz gain, ingurumena ere kontuan hartzeko pausoak emango ditugu



Principales compromisos de los centros escolares:

Promoveremos la reducción en la utilización de embalajes de usar y tirar en el almuerzo que traemos al centro escolar a favor del uso de embases reutilizables como el “tupper”

Usaremos el papel de forma racional (imprimir únicamente cuando sea necesario, reutilizar las copias mal hechas, imprimir por ambas caras, etc.)

No tiraremos papeles al suelo y clasificaremos correctamente los residuos generados para facilitar su posterior reciclaje

Promoveremos la prevención, reutilización y reciclaje de residuos en los eventos organizados en el centro escolar

Usaremos el material escolar de forma responsable para que podamos utilizarlo en sucesivos cursos escolares

Tendremos en cuenta, además del precio, criterios ambientales a la hora de adquirir material escolar

ZER ESKATZEN DIOGU UDALARI?

HERRI MAILAN KONTSUMO ARDURATSUA
ETA HONDAKINEN MURRIZKETA,
BERRERABILPENA ETA BIRZIKLAPENAREN GAIAN
AURRERAPAUSSOAK EMATEKO, ZENBAIT BEHAR
DAUDELA IRUDITZEN ZAIGU ETA HORRELA
JAKINARAZI DIOGU LEZOKO UDALARI
MAIATZAREN 31 EAN IZANDAKO FOROAN



Hiri-hondakinen bilketa sistema berriarekin lortutako emaitzei buruzko informazioa herritarren eskura jartzea, ahalik eta modu argienean

Hondakin bereziei buruzko edukiontzia (arroparena, etxeko olioarena, pilena, ...) herriko toki gehiagotara zabaltzea, hondakin mota hauetan ere birziklapen maila altuagoa lortzeko

Herrian bertan eta eskualde mailan sortu eta ekoiztutako produktuak kontsumitzeko erraztasunak ematea (Lezoan bertako edo eskualdeko esnea eta yogurtak saltzeko makina bat jarri, herriko ospakizunetan bertako produktuak erabili, eta abar)

Lezoko eskolei hiri-hondakinen bilketa sistema berriari buruzko informazio puntuala ematea eta aldaketak egin behar badira, horien inguruan gaitza informatzea

Hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklatzeari

PRINCIPALES SOLICITUDES AL AYUNTAMIENTO

Informar correctamente a la ciudadanía sobre los resultados obtenidos con el nuevo sistema de recogida de residuos urbanos

Extender los contenedores de residuos especiales (del aceite, de pilas, de ropa) a más puntos, dentro de Lezo

Fomentar el consumo de productos locales (poner una máquina “vending” de leche y yogures, utilizar productos locales o de la comarca en las celebraciones y en los eventos del municipio, etc.)

Organizar más campañas de sensibilización sobre la reducción, reutilización y el reciclaje de los residuos

Premiar y reconocer a las personas, empresas y organizaciones que participen en la prevención de residuos


buruzko sentsibilizazio kanpaina gehiago egitea, oraindik ere arlo honetan hobetu beharra dagoela uste dugulako

Lezon antolatutako ospakizunetan hondakinak gutxitu eta berrerabiltzeko jarduerak antolatzea (adibidez, behin eta berriz erabili daitekeen baxera jarriaz), eta sortutako hondakin guztiak gaika sailkatzea

Hondakin kopurua murrizten duten herritarrak (etxean konposta eginez, adibidez), saltokiak eta enpresak saritzea (zabor tasaren bidez, enpresei sortutako sari berezi bat edo aitorpen bat, ...)

Herrian graffitiak egiteko eta kartelak jartzeko horma eta panel apropos batzuk jartzea

Udalak Eskolako Agenda 21 programan inplikazio handiagoa izatea.



Hurrengo ikasturtean ere KONTSUMO ARDURATSUAren gaian sakontzen jarraituko dugu, Eskolako Agenda 21 en parte hartzen duten Oarsoaldea eskualdeko gainerako ikastetxeekin batera.

El próximos curso escolar seguiremos trabajando el tema del CONSUMO RESPONSABLE.

